

# EUSKADIKO PENTSIOAK, BGAE

## 2015EKO EKAINEKO GESTIO TXOSTENA

Urtearen lehen zatian, merkatuaren portaerak bi epealdi ezberdin izan ditu. Apirilaren erdialdera arte, arriskuko aktibo guztiek portaera positiboa izan dute. Burtsa ia gehienak errebalorizatu egin dira, interes-tasak beherantz joan eta kreditu-diferentzialak estutu ahala. Ondorioz, zor korporatiboak irabazi handiak lortu ditu, arrisku maila guztietan. Urtarrilean minimotara iritsi zen petrolioaren ondoriozko deflazio-beldurraren eta Europako Diru Batasuneko agertoki makroekonomiko ez oso sendoaren eraginez, EBZk zor subiranoa erosteko programa bat jarri zuen abian, epe luzerako inflazioaren igurikimenak handitu, barne-eskaria piztu eta ekonomia zorpetuenen defizitak arindu nahian. EBZren ekintzaren eta Japoniako Bankuarenaren ondorioz, multzo ekonomiko horietako burtsak % 10etik gorako irabaziak lortu ditu, urtearen lehen laurdenean. Eta, banku zentralen proaktibotasuna aldatu ez bada ere, arrisku-merkatuen portaera ezberdina izan da, apirilaren 15etik aurrera: askoz ere hegazkorragoa eta joera negatiboduna. Zer gertatu da?

Batetik, lehengaien prezioak egonkortu egin dira. Petrolioia % 15 garestitu da bigarren hiruhilekoan, urtean % 10 metatzeraino. Hori dela eta, ezagutzen ziren KPIaren azken tasak arindu egin dira, eta inflazio-igurikimenak izaten ari ziren beherakadak gerarazi. Bestetik, eurogunearen lehen hiruhilekoko hazkunde ekonomikoa harrigarria izan da (onerako, gainera), Espainian batez ere. Horri esker, 2015erako eta 2016rako BPGd-aren igurikimenak gorantz berrikusi dira. Agertoki horretan, sentimendu- eta jarduera-adierazleek ere hobera egin dute, eta, ondorioz, Europako Diru Batasunean deflazioa nozitzeko aukerak txikitu egin dira eta epe luzerako interes-tasak maila "normalagoetara" iritsi dira, egungo ekonomia-abaguneari jarraiki. Epe luzerako tasek oinarrizko 60 puntuko gorakada izan dute 10 urterako Alemaniako zorrean; Espainian, berriz, oinarrizko 100 puntukoa izan da hazkundera, eta 10 urterako bonua % 2,30eko errentagarritasunera heldu da. Horrenbestez, errenta finko subiranoaren bigarren hiruhilekoko portaera oso negatiboa izan denez epe luzeetan, zor-zorroek galerak izan dituzte, urtearen lehen erdian. Era berean, burtsak zuzendu egin behar izan dira azken hiletan, epe luzerako interes-tasa berriek erakargarritasuna kentzen diotelako eta Grezia eurogunean ziurgabetasuna sentiarazten ari delako. Hartzekodunekin akordiorik ez lortzearen ondorioz, Greziako gobernuak referenduma iragarri du, hartu beharreko neurrien inguruan. Esku-hartze hori ez da ondo jausi eurogunean, eta burtsak zuzendu beharra ekarri du. Bestalde, zor korporatiboaren merkatuak ere zigorra jaso du, eta haren diferentzialak handitu egin dira zor publikoaren aldean.

Eta, beste aldean, Estatu Batuak ditugu. Bigarren hiruhilekoan jasotako datu ekonomikoak espero zirenak baino kaskarragoak izan badira ere eta BPGd-aren hazkunde-aurreikuspenak beherantz berrikusi badira ere, ekonomiak % 3an jarraituko du hazten, 2015ean eta 2016an. Hori dela eta, Erreserba Federalak "normalizatu" egingo ditu interes-tasak. Aurreikuspenen arabera, urtearen bigarren zatian bi igoera gertatuko dira. Horrek burtsa-irabaziak moteltzea eta interes-tasak handitzea ekarri beharko luke, bai eta zorraren portaera zigortzea ere. Gainera, tasen igoerak Estatu Batuetako ekonomiaren dinamismoa ez duela motelduko uste badugu ere, garatzen ari diren ekonomia batzuen aktiboetan eragin negatiboa izan dezake.

Laburbilduz, ziurgabetasun-eragileak handiak dira oraindik, eurogunean batez ere, Greziaren eta Europako gainerako herrialdeen arteko akordiorik ezak hegazkortasun handia ekarriko baitu, datozen hiletan. Halere, gure ustetan, eurogunean jarraitzeko aukera handiak ditu Greziak, eta, beraz, errenta

aldakorrak aktibo erakargarria izaten jarraituko du. Aitzitik, errenta finkoak ez luke portaera ona izan behar, epe luzerako interes-tasek gora egiten jarraitu beharko luketelako, urtearen bigarren erdian.

Planaren Izena	Errentagarritasuna (*)				Eskubide Ekonomikoak	Ohiko Bazk. Onuradun Kopurua
	Urtea	3 Urte	5 Urte	Hasiera		
<i>Euskadiko Pentsioak, Monetario</i>	0,1%	0,1%	0,2%	0,2%	201.050.048,30 €	54.464
<i>Euskadiko Pentsioak</i>	-1,2%	3,7%	2,4%	3,3%	163.902.540,66 €	54.999
<i>Euskadiko Pentsioak, Moderado</i>	1,2%	6,5%	3,6%	3,1%	43.642.301,04 €	5.674
<i>Euskadiko Pentsioak, Mixto</i>	2,7%	9,2%	5,4%	5,2%	79.770.085,70 €	15.042
<i>Euskadiko Pentsioak, Variable</i>	5,1%	12,6%	7,0%	6,4%	79.449.875,84 €	14.542
<i>Euskadiko Pentsioak, Dinámico</i>	6,5%	13,7%	7,0%	6,2%	29.690.535,06 €	4.078
<i>Euskadiko Pentsioak, Garantizado I</i>	0,0%	5,7%	3,8%	6,2%	47.826.544,01 €	3.287
<i>Euskadiko Pentsioak, Garantizado VIII</i>	0,0%	8,2%	-	3,3%	17.138.700,17 €	3.526
<i>Euskadiko Pentsioak, Garantizado IX</i>	-0,3%	5,5%	-	3,8%	36.141.522,62 €	3.803
<i>Euskadiko Pentsioak, Garantizado XI</i>	-0,2%	5,1%	-	3,5%	69.156.846,76 €	9.003
<i>Euskadiko Pentsioak, Garantizado XII</i>	0,3%	9,1%	-	6,5%	23.880.471,96 €	4.584
<i>Euskadiko Pentsioak, Garantizado XIII</i>	0,1%	6,36	-	4,5%	18.183.143,82 €	2.664
<i>Euskadiko Pentsioak, Garantizado XIV</i>	0,1%	5,63	-	5,4%	28.420.662,34 €	3.756
<i>Euskadiko Pentsioak, Garantizado XV</i>	-0,3%	-	-	5,3%	42.381.701,34 €	7.742
<i>Euskadiko Pentsioak, Garantizado XVI</i>	1,0%	-	-	8,4%	21.809.180,42 €	5.979
<i>Euskadiko Pentsioak, Garantizado XVII</i>	0,5%	-	-	6,2%	16.890.777,00 €	3.163
<i>Euskadiko Pentsioak, Garantizado XVIII</i>	1,4%	-	-	8,0%	30.385.036,04 €	10.074
<i>Euskadiko Pentsioak, Garantizado XIX</i>	2,0%	-	-	7,6%	12.142.136,11 €	3.543
<i>Euskadiko Pentsioak, Garantizado XX</i>	0,7%	-	-	4,6%	51.158.075,92 €	7.704
<i>Euskadiko Pentsioak, Garantizado XXI</i>	1,3%	-	-	4,4%	7.160.929,80 €	1.332
<i>Euskadiko Pentsioak, Garantizado XXII</i>	4,9%	-	-	4,2%	42.169.455,39 €	8.416
<i>Euskadiko Pentsioak, Garantizado XXIII (**)</i>	-0,2%	-	-	-0,3%	23.136.238,00 €	3.385
<i>Euskadiko Pentsioak, Garantizado XXIV (**)</i>	-0,2%	-	-	-0,3%	67.799.274,39 €	11.946
<i>Euskadiko Pentsioak, Garantizado XXV (**)</i>	-1,7%	-	-	-2,8%	13.310.958,92 €	4.197
<i>Euskadiko Pentsioak, Garantizado XXVI (**)</i>	0,4%	-	-	0,1%	48.120.200,60 €	5.635
<i>Izarpensión Renta</i>	-0,7%	1,1%	1,1%	1,2%	47.097.133,97 €	11.127
<i>Izarpensión Garantizado 21</i>	0,8%	14,1%	-	5,0%	32.128.703,65 €	2.079
<i>Izarpensión Garantizado 16</i>	-0,4%	8,4%	-	4,6%	26.310.648,11 €	1.772
<i>Izarpensión Garantizado 20</i>	0,6%	7,57	-	7,1%	9.600.294,87 €	871
<i>Izarpensión Garantizado XV</i>	-0,2%	-	-	5,3%	9.390.064,63 €	1.378
<i>Izarpensión Garantizado XVI</i>	0,8%	-	-	8,6%	3.810.767,18 €	990
<i>Izarpensión Garantizado XVII</i>	0,5%	-	-	6,2%	2.460.040,43 €	302

(\*) Urteko UTBarekin. (\*\*) Balio Absolutuan.

Bazkideei hauxe gomendatzen diegu: plan mota aukeratzean inbertsioaren horizontea (erretirora edo erreskatara arte aurreikusten den denbora-tartea) eta arriskuarekiko erlazioa har dezatela kontuan, ez epe laburrerako merkatu-aurreikuspenak. Gainera, interesgarria izan daiteke planerako ekarpenak aldizka egitea, merkatuen hegazkortasuna arintzeko.